

OSO GARRANTZITSUA

ERASMUS+ programan parte hartzeko interesa baldin baduzu, honakoak dira ezer egin **AURRETIK** aintzat hartu behar dituzun funtsezko kontuak:

1.- **INFORMA ZAITEZ** ERASMUS programarako eskaera **EGIN AURRETIK**. Ahalik eta informazio gehien eta zehatzena izateak berebiziko garrantzia du prozesua ganoraz burutzeko eta gaizki ulertuak eta ezusteko desatseginak ekiditeko. Horretarako hiru kontsulta-iturri nagusi dituzu:

- **Zure Doktorego programaren koordinatzailea.**
- Doktorego Eskola (DOKE) nazioarteko harremanen arduraduna.
- Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetzaren web orria: <http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/home>

2.- **ARRETA HANDIZ IRAKURRI** ERASMUS+ programari buruzko informazioa. Erreparatu bereziki plaza bat lortzeko bete behar dituzun **baldintzei**. Kontuan hartu Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak ezarri eta UPV/EHUko ikasle GUZTIEK bete behar dituzten baldintza orokorrez gain, **doktorego programa bakoitzak bereak dituela** eta horiek murriztaileagoak izan daitezke (inoiz ez orokorrak baino malguagoak).

3.- Bekaren bateragarritasuna: Erasmus beka izanik, beste diru laguntza batzuk ere jaso daitezke. Hala ere, beste beka batzuk badituzu, baliteke Erasmus beka jasotzeko aukerarik ez izatea.

Beste erakunde baten beka jasotzen ari bazara (adibidez, [Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egindako deialdi honen laguntza, hau da, IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO DOKTORETZA AURREKO PROGRAMAREN APLIKAZIOAN JASOTA EZ DAUDEN ZENTROETAN EGONALDIETARAKO LAGUNTZA](#)), zeuk ziurtatu behar duzu ea Erasmus beka jaso dezakezun beste langutza eman dizun erakundearekin harremanen sartzan.

4.- Zure eskaera egin aurretik **ZIURTATU** interesatzen zaizun/zaizkizun unibertsitatean/etan zure antzeko programa eskaintzen dela. Horrez gain, kontsulta ezazu haien egutegi akademikoa eta zein iraupen duten eskainitako plazak.

5.- **ARRETA BEREZIA** jarri hizkuntza-betebeharrei inorako eskaera egin aurretik. Kasu askotan ezinbesteko baldintza da aukeratua izateko. **Unibertsitate askotara joateko beharrezkoa da bertan ikasketak eskaintzen diren hizkuntzaren gaitasun nahikoa, ona edo oso ona.** Galdetu zure Ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileari.



6.- Gogoratu Erasmus programaren barruan 12 hilabeteko mugikortasuna egin ahal izango duzula ziklo bakoitzeko (gradua, masterra, doktoregoa), Erasmus Praktikak programaren barruan pasatutako hilabeteak barne (azken hauek gradurako zenbatuko dira). **Ikasketak egiteko egonaldia gutxienez 2 hilabetekoa izan behar da. SEPIEK, ziklo bakoitzean, ikasketak egiteko ZAZPI HILABETE baino ez ditu finantzatuko kurtsu bakoitzeko.**

7.- Nazioarteko Harremanetako Bulegoak eskabidean adierazitako posta erabiliko du nazioarteko mugikortasun programekin zerikusia duen edozer komunikatzeko.